



“Urumea sagardoaren ibaia”

Kirola, gastronomia eta euskal kultura

“Urumea sagardoaren ibaia” esperientzia

Donostiak badu ibai eder bat: Urumea, sagardoaren ibaia bezela ezagutua mendeetan zehar.

Donostia, Urumea eta sagardotegiak ezagutzeko aukera paregabea duzu hau, **kirola, gastronomia eta euskal kultura** uztartzen dituen. **Urumea** ibaian zehar **kanoa** edo **kayakean jaitsiera** egingo da eta ondoren **sagardotegi menu tradizional** bat dastatu.

Ezagutu Urumea, ezagutu Donostia eta ezagutu Urumearen historia zein istorioak. **Sagardoaren autopista** izan zen mendeetan zehar, **Astigarragatik sagardoa garraiatzen** baitzen Donostiako portura, **garai** bateko **"ala"** izenadun enbarkazio tradizionalan.

Lizeaga eta Petritegi sagardotegiak, Arrauning enpresa eta **Gipuzkoako Sagardogile Elkartearen** arteko elkarlanaren bitartez antolatzen da jarduera hau. Aipatutako Gipuzkoako Sagardogile Elkarteak erreserbaren kudeaketa egingo du.

Iraupena: 4 ordu.

Egunak: Astelehenetik igandera.

Hizkuntzak: Euskera, gaztelera eta inglesa.

Ibilbidea

11.00 edo 18.00: Mareen arabera errekan gora edo behera egingo da kayak edo kanoan. Irteera Lizeaga sagardotegiko aparkalekutik (Donostiako Martutene pasealekua, 139).

13.00 edo 20.00: Haserako puntura iritsiera, Lizegako aparkalekura.

13.30 edo 20.30: Bazkaria edo afaria Lizeaga edo Petritegi sagardotegietan.

Prezioak

Informazioa eskatzeko: visitas@petritegi.com

Barne

Ibaian zehar ibilbide gidatua.

Garraioa.

Sagardotegi menu tradizionala.

Baldintzak

Gutxieneko adina: 7 urte

Talde minimoa: 4 pertsona

Aldez aurreko erreserba beharrekoa da.

Ordainketa: Ordainketa transferentzia bitartez egingo da. Totalaren %30 erreserba egiterakoan eta %70 erreserba eguna baino aste bat lehenago.

Anulazioak: Erreserba orduak abiapuntutzat hartuta.

Erreserba eguna baino aste bat lehenago ezeztatzen bada, ordaindutako kopuruaren 100% itzuliko da.

Hiru egun lehenago ezeztatzen bada, ordaindutakoaren %50 itzuliko da.

48 ordu lehenago ezeztatzen bada, ez da dirurik itzuliko.